

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala****Urduñako Udalaren Tratamenduko Ekintzen Erregistroaren onespena**

Alkatetzaren 2020ko azaroaren 27ko dekretuaren bidez, honako hau onartu zen: Urduñako Udalaren tratamenduko ekintzen erregistroa onetsi zen, honako hauek betez: datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiko 30. artikulua eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 31. artikulua.

Halaber, erabaki da tratamenduetako bakoitza dagokion udal arloari atxikitzea, eta Urduñako Udalaren gardentasun -atarian argitaratzea, bai eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere. Hori guztia bat etorri gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 6. bis artikuluekin.

Tratamenduko ekintzen erregistro hori Urduñako Udaleko gardentasun -atarian dago eskuragarri: <http://zabaltzen.urduna.com/es>

Urduñan, 2020ko azaroaren 30ean. — Alkatea, Itziar Biguri Ugarte